anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2013ko maiatzaren 24a
11. urtea
502. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

Kultura

Elorrioko Kilauea taldeak jaso du Durangaldeko Lehenengo Maketa Lehiaketako sari nagusia > 11

Faustegoienako zozketa errepikatuko dute, akats informatiko bat dela-eta >3

Faustegoienako babeseko 52 etxebizitzen zozketatik kanpo utzi zituzten zortzi herritar martxoaren 21ean

Martxoaren 21ean Faustegoienako babeseko etxebizitzak egokitu zitzaizkien 52 lagunak zur eta lur geratu dira Durangoko Udalak zozketa errepikatu behar dela jakinarazi dienean. Udalak dioenez, akats informatiko bat tarteko, zortzi lagun zozketatik kanpo geratu ziren, eta errepikatu egin beharko dute. Kaltetuak haserre daude udalagaz. Azaldu dutenez, helegiterako eperik ere ez diete eman. Gaineratu dutenez, batzuk mezu elektroniko bidez jaso dute jakinarazpena.

San Mamesera, agur esatera

Athleticek azken partidu ofiziala jokatuko du domekan San Mamesen, Levanteren kontra. Durangaldeko zaleak ere, hutsik egin barik, Katedralera joaten dira, batzuk harmailetara eta beste batzuk berdegunera > 16-17

Zaloa Fuertes

Abadiño > 2
Umeak Zelaietako urbanizazioan parte hartzen dabiltza

Mallabia > 6
Ortu ekologikoak inauguratuta, elkartea sortu gura dute

Atxondo > 6
Eskola legearen barruan eraiki zela dio auzitegiaren epaiak

Elorrio > 8
Udalaren gardentasuna erakusteko datuak Interneten

Herririk herri

> ABADIÑO

Azken hamar urteetan erdira jaitsi da auto istripu kopurua

> I.E.

Herrian azken urteetan gertaturiko auto istripuen datuekin ertzaintzak eta udaltzaingoak prestatu duten balantzea eman du jakitera gobernu taldeak. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, aurreko urteekin alderatuta, %55 gutxitu dira zauridunak eragin dituzten istripuak.

Udalak zabaldu dituen datuen arabera, 2012. urtean 76 auto istripu gertatu ziren; eta horietatik 20tan zauri arinak izan zituzten kaltetuek. Alkatearen berbetan, "duela 12 urte, istripuak herriko arazo handienetako bat ziren".

Herriak errepide segurtasunean onera egin duen arren, istripuak saihesteko lanean jarraitu behar dela nabarmendu du udalak: "Oso inportantea da herritarrak zuhur gidatzearen garrantziaz ohartzea".

Umeak Zelaietaren urbanizazioan parte hartzen dabiltza

Auzoko espazio publikoaren berrantolaketarako, umeen ikuspuntua landu dute eskolako umeekin

> ITSASO ESTEBAN

Zelaietako herri eskolako 8 eta 12 urte bitarteko ehun umegaz jardunaldiak egin dituzte asteon, auzoko herrigunea eraldatzeko parte-hartze prozesuaren barruan. Helduekin orain arte buruturiko bi saioetan bezala, auzoko espazio publikoaren berrantolaketarako, herritarren hausnarketak, ekarpenak eta proposamenak biltzea da prozesua dinamizatzen diharduen Urak Bide taldearen jomuga. Izan ere, hirigintza diseinua egiteko, parametro tradizionalak aldatu eta umeak gura dituzte hartu ardatz moduan. Eredutzat dute Italiako Fano hiriko esperientzia: hirigintzari loturiko gaietan umearen ikuspuntua lantzea auzotar guztientzako onuragarria dela uste dute.

> Hirigintzan, umeentzako ona dena, gainontzeko herritarrentzako ere ona dela da ekimenaren filosofia

Astelehenean, antzezlan bategaz abiatu zuten hirigintzari buruzko jarduna herri eskolan, eta kalean ere hainbat ekintza egin dituzte: umeek urteetan auzoa zelan aldatu den ikasi dute, esaterako, —orain trinketea dagoen lekuan baso bat zegoela, adibidez—, eta ohartu dira, etorkizunera begira aldaketak, hobekuntzak, egitea posible dela. Asteon landutakoa frontoian erakutsiko dute gaur arratsaldean.

Espazio publikoaz gogoeta egiteko, kalera irten ziren umeak martitzenean.

> ZALDIBAR

"Zerbitzuei eusteko ahaleginaren" isla den aurrekontua onartu dute Bilduk eta PPk

Inbertsio errealetarako 51.000 euro baino ez ditu aurreikusten aurrekontuak

Abstenitu egin ziren EAJ eta PSE-EEko ordezkariak.

> ITSASO ESTEBAN

Udal gobernuko Bilduko sei zinegotzien eta PPko zinegotziaren aldeko botoekin onartu zuten eguaztenean 2013rako udal aurrekontua. Abstenitu egin ziren, ostera, EAJko eta PSE-EEko ordezkariak. Aurten, Zaldibarko Udalean 3.174.000 euroko diru sarrera-irteerak egingo direla aurreikusten du eguaztenean onartu zuten dokumentuak. Iazkoagaz alderatuta, ia %10 altuagoa da aurrekontua, baina gobernu taldeak azaldu duenez, "haurreskola eta urte biko umeentzako eraikina egiteko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzak" dira gehikuntza horren eragileak.

Aitor Arizmendiarreta Ogasuneko zinegotziak esan duenez, "diru sarreren jaitsiera" da 2013rako Zaldibarko udal aurrekontuaren punturik aipagarriena: diru sarreretan 280.000 euro gutxiago izango dutela estimatu dute. Gobernu taldearen aurreikuspenen arabera, Bizkaiko Foru Aldunditik 167.000 euro gutxiago jasoko du udalak aurten. Bilduren berbetan, "horrek zuzen-zuzenean eragiten dio zerbitzuei eusteko egiten ari garen ahaleginari". Horrela, inbertsio errealen atalean 51.000 euro baino ez dituzte aurreikusi; gaur egun haurreskolan erabiltzen duten aurrefabrikatutako eraikinaren alokairurako 25.000 euro, eta urteko ohiko hainbat gasturako gainerakoa.

Haurreskolako obrak

Haurreskolako eta urte bikoentzako eraikina egiteko udalak Jaurlaritzaren dirulaguntzagaz aurten egingo duen milioi bat euroko inbertsioa ez da ageri eguaztenean onarturiko udal aurrekontuen inbertsioen atalean; Arizmendiarreta zinegotziak azaldu duenez, obra hori iazko aurrekontuaren soberakinagaz finantzatuko dutelako. Aste gutxi barru, gai hori lantzeko udalbatzar bat deituko dutela adierazi du Arizmendiarretak.

> DURANGO

Euskaraz Bizi Egun Txikia antolatu du EHEk

Euskal Herrian Euskarazek aldarrikatu du ordua dela euskaraz bizitzeko erabakia hartzeko

> M. ONAINDIA

Nazio mailako dinamikaren barruan, Euskaraz Bizi Egun eratu zuen Euskal Herrian Euskarazek apirilaren 13an Agoitzen, eta orain Durangoko kideek hartu dute lekukoa: Euskaraz Bizi Egun Txikia eratu dute ekainaren 8rako. "Ez dugu erdararen errepidera salto egingo, euskararen espaloian tinko mantenduko gara". Metafora horregaz aldarrikatu du Durangoko EHEk ordua dela euskaraz bizitzeko erabakia hartzeko, eguneroko ezintasunei aurre eginda.

11:00etan jolasak eta saskibaloi txapelketa egingo dituzte Ezkurdin. 14:30erako, bertso bazkaria eratu dute Santa Anan, Silveira, Bartra eta *Abarka*segaz. Arratsaldean, kontzertuekin amaituko dute jaia.

Hainbat lagunek egin dute Euskaraz Bizi Egun Txikirako deia.

> DURANGO

Faustegoienako zozketan kaltetuak, udalagaz haserre

Faustegoienako etxeen banaketan akatsa egon zen, eta berriro egin beharko dute 52 etxeren zozketa

> MARKEL ONAINDIA

Martxoaren 21ean Faustegoienako babeseko etxeen zozketa egin zuen udalak. 58 etxe banatu zituzten, eskatzaileak bi taldetan bereizita. Batean 6 etxe, bestean 52. Bada, bigarren zozketa horretatik kanpo utzi zituzten nahi barik zortzi herritar. Akatsa, eragiketa informatikoa egin zuen enpresari egotzi dio udalak, eta enpresak berak ere onartu ei du. Orain, bigarren taldeko zozketa berriro egingo dute. Baina, kaltetuak –etxea jaso zutenak– ez daude ados; haserre egin dute berba. Kexak aurkeztu dituzte Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) eta kontsumitzailearen bulegoan. Atzo alkateagaz egon ziren euretariko lau, baina egoerak berdin jarraitzen du.

Kaltetuetako batek adierazi du, joan zen eguenean mezu elektroniko bidez heldu zitzaiela berria. Zozketatik igarotako hilabete bietan galdezka ibili direla eta ez dietela erantzunik eman.

Martxoaren 21ean egindako zozketa, San Agustin kulturgunean.

Helegiterako eperik ez dietela eman, eta eskubide hori ukatu dietela uste du: "Hori ez da legala". Gainerako kaltetuekin kontaktatu eta batzar bat egin zuten.

Beste kaltetu batek dio mezu elektronikoa ez zaiela guztiei heldu. Gaineratu du, udalak zozketa egin eta bi egunera bazekiela akatsa egon zela, eta ez du ulertzen zergatik ez dieten lehenago ezer esan: "Batzuek Muntsaratzeko etxeen adjudikazioak atzera bota dituzte, Faustegoienan baietz esan dietelako".

Montorretan zabaldu dute AKI brikolaje denda.

AKI brikolaje denda zabaldu dute Montorretan

Atzo egin zuten inaugurazioa; enpresako arduradunek esan dute 35 lanpostu sortu direla

> M. O.

Montorretako industriagunean komertzio berri bat zabaldu dute: AKI brikolaje saltokia. Atzo egin zuten inaugurazioa, eta hainbat jende bertaratu zen. Ikusmina sortu zuen. Gainera, kanpoan ipinitako karpa batean pintxo potea egiteko aukera eskaini zuten.

Enpresako arduradunek esan dute 35 lanpostu sortu direla denda zabalduta. Behargin horien erdiak Durangokoak dira, eta gainerakoak inguruko herrietakoak. Guztira, lau milioi euroko inbertsioa egin du AKIk. Bizkaian daukan lehenengo saltokia da Durangokoa, Euskal Herriko bigarrena. Brikolajean, lorezaintzan eta dekorazioan espezializatutako denda da AKI. Hamahiru sailetan banatuta eskainiko dituzte produktuak.

"Geu Be behar dugu, Geu Be maite dugu"

Eguaztenean ekitaldia egin zuten San Agustinen

Ekitaldiaren amaierako talde argazkia, eguaztenean.

> M. O.

Eguaztenean, hamar urte bete ziren Geu Be elkartea sortu zenetik. Hori dela-eta, ekitaldia egin zuten San Agustinen. Hainbat lagunek egin zuten berba: gurasoek, begiraleek, gazteek... Geu Beko kide batek esan zuen elkartea euren bizitzetako parte garrantzitsu bihurtu dela: "Geu Be behar dugu, Geu Be maite dugu". Aretoa beterik, ia ordu biko ekitaldi hunkigarria izan zen.

Ekitaldiaren amaieran, urteotan elkartea lagundu dutenak omendu zituzten. Besteak beste: Durango, Iurreta, Abadiño, Atxondo, Elorrio, Zaldibar, Berriz, Izurtza eta Garaiko udalak; Amankomunazgoa eta Aldundia. Azken honen izenean, Pilar Ardanza diputatuak hartu zuen berba.

> OTXANDIO

Orientazio probetan 600 gaztetxok parte hartuko dute

>JOSEBA DERTEANO

Maiatzaren 28, 29 eta 31rako Orientazio Proben bosgarren aldia antolatuko dute Otxandioko Mainondo Herri Ikastetxean hasita. Probaren helburua da, ikastetxetik abiatu eta hainbat tokitan ipinitako balizak bilatzea eta ibilbidea ahalik eta arinen egitea, orientaziorako dituzten gaitasunak erabilita.

Iaz, 500 ikasle txanda bitan banatu eta estu samar aritu ziren. Aurten, 14 ikastetxetako ia 600 ikasle datozenez (LHko 5. eta 6. mailakoak), hiru txanda egingo dituzte: 09:30ean hasiko dira goizetan, eta 14:10ean arratsaldetan. Hilaren 28an Bilbo, Legutio eta Gasteizko ikastetxetako ikasleak ariko dira. Hilaren 29an, Otxandiokoaz gainera, Zaldibar, Abadiño, Lemoa, Zeanuri eta Arteakoak, eta maiatzaren 31n, Arratzu, Igorre, Gasteiz, Aramaio eta Areatzakoak.

Harrison
HOTEL - RESTAURANTE

Izan ezazu eztegu esklusiboa gure Pergolan!

Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendariak eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitute.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12
48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530
www.hotelharrison.com
hotelharrison@hotelharrison.com

Harrison hotelaren eskutik bi pertsonentzako afaria eta alojamendua zozketatuko ditugu

Noren aurka jokatuko du Athleticek San Mameseko azken partidu ofiziala?

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta
Aurreko zozketako irabazlea: AINTZANE GASTELU-URRUTIA. Zorionak!

> DURANGALDEA

“Teknologia eta prestakuntza izan behar dira gure helburuak”

Adrian Zelaiak ‘Toki garapena krisi garaian’ hitzaldia emango du eguaztenean, Plateruenean

>AMAIA UGALDE

Durangaldeko garapen ekonomikorako hainbat proposamen egingo ditu Adrian Zelaiak eguaztenean, 20:00etan, Plateruenean emango duen hitzaldian. Ekai Centerreko lehendakaria da Zelaia, eta bertan, arlo sozioekonomikorako aholkularitza eta ikerkuntza egiten dute.

Baliabide gutxiagogaz lehiakortasuna lortu behar dela diote politikari batzuek. Austeritatea eta garapena zelan uztartu daitezke?

Oso modu txarrean. Austeritate politikak beste testuinguru baterako daude pentsatuta. Gure kasuan, Espainian gertatzen ari denari erantzun gura diete. Egitura produktiborik ez daukan herrialdea da, eta gainzorpetuta dago. Euskal Herrian eta Durangaldean, zorpetze maila ez da oso handia, eta hemen badaukagu egitura produktiboa. Austeritate politikek ez diote erantzuten hemengo egoerari, eta gainera kaltegarriak dira. Durangaldearen helburuak teknologia eta prestakuntza indartzea izan behar dira, eta austeritatearekin lortzen duguna da hori ahaztea. Lan erreforma beste herrialdeetarako dago pentsatuta, zorpetze arazoa dutenek kostuak jaisteko. Hemengo enpresariak eta sindikatuak horren inguruan borrokan ibili behar izateak ez dauka zentzurik.

Teknologia eta prestakuntza aipatu dituzu. Horiek dira Durangaldearen erronka nagusiak?

Gakoak dira, eta biak lotuta daude: teknologia maila indartzeko, prestakuntza derrigorrezkoa da. Momentu honetan, Durangaldeko industria enpresetan egiten den diagnostikoa, hain zuzen, hori da: daukagun jendea ez da kapaza arlo teknologikoan salto bat emateko, proposamen berriak egiteko... Argi dago prestakuntzan hutsunea dagoela. Hor kontraesana dago, orain arte enpresa asko kostuak murrizten egon dira kualifikazio bako jendea kontratatzen.

Durangaldean Enplegu Plana, Lehiakortasun Poloa... badaude ekimen batzuk martxan. Zelan ikusten dituzu?

Ondo, batez ere, prestakuntzan egiten dabiltzan ahaleginagatik, Behargintzan-eta, lana egiten da. Baina lidergo politikoaren falta igartzen dugu. Epe ertain eta luzera begirako ekimenak bideratzeko ardura hartu behar dute agintari politikoek. Ekimen guztiak egin daitezke modu batera edo bestera. Egon daiteke jarraipen burokratiko bat, edo bestela benetan atzetik egon, ziurtatzeko ekimenak ondo irteten direla. Oso garrantzitsua da, baita, gizarte osoa inplikatzea. Ekonomiari buruzko ekimenak planteatzen direnean, beti enpresariei buruzko ekimenak izaten dira, eta epe luzerako garapen ekonomikoa hori baino askoz gehiago da: hezkuntzan, ikerkuntzan... orokorrean dagoen mentalitatea aldatzeko lan egin behar da.

Adrian Zelaia Ekai Centerreko lehendakaria da. 54 urte ditu, eta Durangon bizi da.

> *“Lider politikoak behar dira. Ez da gauza bera arazoei aurre egitea behin lehertutakoan, edo arazo bat egon daitekeela ikusten denean”*

Horretarako, dirua eta inbertsioak behar dira.

Inbertsioak, formazioa, ideiak, kemena, borondatea... Sei urte gaude krisian, eta hau luzerako da. Horregatik, krisialdiari aurre egiteko neurriak ere epe ertainerako eta luzerakoak izan behar dira. Nik uste dut, lider politikoak arduratu beharko liratekeela hori zuzenean jarraitzeaz. Prestakuntza arloan egiten dabiltzana ikusi, hartu-eman zuzena eduki Behargintzarekin, enpresariekin, sindikatuekin, zer gertatzen ari den ikusi. Ez da gauza bera arazoei aurre egitea behin lehertutakoan, edo arazo bat egon daitekeela aurreikusten denean. Agian enpresa batek arazo bat dauka bankuekin, eta laguntza politikoa oso garrantzitsua izan daiteke lortu ezin den kreditu bat lortzeko. Inplikazio hori ez da etorri behar enpresak derrigortuta, lidergo politikoak aurrea hartu behar lioke, enpresariekin, sindikatuekin berba egin, eta arazoak lehertu aurretik, ahal bada laguntzeko.

San Eloyko gatazkari begira, Bilduk “krisialdiko kabinetea” proposatu du

Bihar amaitzen da enpresaren likidazio epea; baliteke epaileak epe hori luzatzea

>MARKEL ONAINDIA

San Eloyko gatazkan, atzerakontua hasi dela ohartarazi du Elorrioko Bilduk: “Hamabost egun erlojuaren kontra negoziatzeko, ahalik eta duintasun handienaz lanpostuak salbatzen saiatzeko”. Bihar amaitzen da likidazio epea, eta baliteke epaileak beste hamabost eguneko luzapena ematea. Langileen etete espedientea, ostera, ekaineko bigarren astean amaituko da. Egoera hori ikusita, Bilduk eskaintza egin die alderdiei eta sindikatuei: guztiek batera “krisialdiko kabinetea” sortzea. Koalizioaren ustez, indarrak batzea komeni da. Elorrioko San Eloy enpresan 140 behargin geratuko lirateke lan barik; Abadiñoko Iketzen beste 70.

LABeko kideek esan dute beharginek batzarrak eduki dituztela enpresaren erosle posible bategaz, baina hark ez duela eskaintza zehatzik egin.

Gainera, azaldu dutenez, egoera baten beldur dira: enpresa salbatzea, baina behargin barik. Langileen etete espedientea amaitzean, enpresa behargin barik geratuko da, eta norbaitek epailearen aurrean erosketa egiten badu, lantaldea ez da bere ardurapean egongo.

Dantzaroa eta euskal musikaren merkatu txikia antolatu dute zapaturako

Gerediaga Elkarteak jai egun osora luzatu du

>JOSEBA DERTEANO

Gerediaga Elkartearen eta Durangaldeko dantza taldeen artean Dantzaroa Durangaldeko dantzen bosgarren agerraldia antolatu dute zapaturako. Dantzarien bilgune bihurtzea eta jende askok ezagutzen ez dituen eskualdeko dantzak zabaltzea du helburu ekimenak.

Dantzaroa ekimenean dantzariak eta txistulariak kalejiran.

Durango, Iurreta, Garai eta Berrizko dantza taldeak batuko dituen ekitaldia 19:00etan hasiko da. Durangoko udaletxe aurrean irten, eta kalejiran Andra Mariko elizpera joango dira, 19:30ean dantza saioari ekiteko. Ondoren, gazta eta ardoa banatuko dituzte bertaratzen direnen artean.

Gerediaga Elkarteak jaia egun guztira zabaldu eta zapatu goizerako beste ekimen bi prestatu ditu, biak elkarteak Larrasoloeta kalean duen egoitzan. Alde batetik, euskal musikaren azoka txikia antolatuko dute egoitzaren kanpoaldean. Musika estilo anitzetako 1.000 CD eta binilo prezio merkean eskuratu ahal izango dira. Bestetik, egoitzan bertan, ate irekien jardunaldia egingo dute bazkide zein interesatuentzat. 11:00etatik 14:30era elkarteko egitasmoak, bulegoak eta dokumentategia ezagutzeko aukera eskainiko du Gerediaga Elkarteak.

> MALLABIA

Ortu ekologikoak inauguratu eta gero, elkartea sortu gura dute

Auzolanean egokitu dituzte ortuak eta erremintak gordetzeko txabola

Mallazpin, baratze ekologikoen inaugurazioan ateratako argazkia.

> JONE GUENETXEA

Ortu ekologikoak martxan dira Mallabian. Hamabostaldi kulturalaren barruan inauguratu zuten Mallazpiko baratze gunea maiatzaren 11n. Luncherako, ortuetako erabiltzaile bakoitzak zer edo zer eroan zuen.

Urtebete da ortu ekologikoak martxan jartzeko proiektua abiatu zutela. Batzarra deitu zuen udalak joan zen maiatzean, zerbitzua erabiltzeko herritarren artean interesik ba ote zegoen jakiteko. Deialdiak erantzuna izan du mallabiarren artean, eta urtebete geroago hamahiru lagunek badute lur zati bat lantzeko. Beste sei partzela libre geratu direnez, izena emateko epea berriro zabalduko dutela azaldu du udalak.

Ortu horiek nekazaritza ekologikoan oinarrituta daudenez, gai honen inguruko lau berbaldi antolatu zituzten urtarrilean. Erabiltzaileak nekazaritza ekologikoan trebatzea zen asmoa.

Auzolanaren fruitua

Auzolanean bildu eta zazpi egunetan baratzeak atondu dituzte. Gainera, erabiltzaileek erremintak gordetzeko txabola pintatu dute.

Ortu horien erabiltzaileek elkarte bat sortu gura dute orain. Baratzeak kudeatzeaz gainera, udalagaz bitartekari lana egitea da elkartearen helburu nagusia.

Orain elkarte bat sortzeko asmoa dutela jakitera eman dute ortu horien erabiltzaileek

Ekainaren 3ra arte izena emateko aukera dago udaleku zerbitzuan

Eskolan, udaletxean eta Kultur Etxean apuntatu daiteke; herriko umeek izango dute lehentasuna

> ITSASO ESTEBAN

Udako oporrak gerturatzen ari diren honetan, umeentzako udaleku zerbitzua eskainiko du Mallabiko Udalak. Lau eta hamabi urte bitarteko umeek astelehenetik barikura, goizeko 09:30etik eguerdiko 13:00etara, udalekuetan antolatuko dituzten ekintzez gozatzeko aukera izango dute. Zerbitzua uztailaren 1etik 19ra izango da martxan.

Udal ordezkariek jakitera eman dutenez, izena ematerakoan, herriko umeek lehentasuna izango dute. Apuntatu ahal izateko epea hasi da dagoeneko. Udalekuen eskaera orriak eskolan, udaletxean zein Kultur Etxean jaso daitezke. Izena emateko azken eguna ekainaren 3a izango da. Lehenengo 50 umeentzako lekua egongo dela gaineratu dute antolatzaileek. Informazio gehiago gura duten gurasoek Kultur Etxera jo dezakete eta bertan galdetu, edo bestela, telefonoz deitu dezakete 943 17 66 91 zenbakira.

Informazio gehiago gura duten gurasoek Kultur Etxera jo dezakete, edo bestela, telefonoz deitu

Lehenengo 50 umeentzako lekua egongo dela gaineratu dute udalekuen antolatzaileek

> GARAI

Informatikako ikastaroak antolatu dituzte KZgunean

> M. ONAINDIA

Garaiko Udalak informatikako ikastaroak antolatu ditu KZgunean egiteko. Hainbat gai daude aukeran: Interneteko oinarrizko ikasgaiak, E-Administrazioa, Google Apps, Software librea, sare sozialak, irudia eta soinua... Maiatzaren 31ra arteko epea ipini dute apuntatzeko. Udaletxean eman behar da izena, eta ikastaroen inguruko informazioa ere bertan jaso ahal izango da.

Ikastaroak goizez edo arratsaldez jasotzeko aukera dago. Apuntatzen direnekin, taldeak osatuko dituzte, eta horren arabera jakingo dute zer gai eman. Gutxienez hiru lagunekoak izango dira taldeak. Ekimen honegaz, KZguneari bizitasuna eman gura diotela azaldu dute antolatzaileek.

> IURRETA

Goiuriko betelekurako jarduera baimena balio barik uztea berretsi dute

Ez dira onartu Goiuriko Kofradiaren, auzokide baten eta Lukubaso enpresaren alegazioak

> AITZIBER BASAURI

Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko obra eta jarduera baimena baliogabe uzteko prozeduragaz jarraituko du udalak, horren kontra Goiuriko Kofradiak eta auzokide batek, eta, Lukubaso enpresak sartutako alegazioak ezetsi ondoren. Orain Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak aztertu eta ebatziko du.

Asturiasko Auzitegi Gorenak ibarbideak lurrez betetzeko Jaurlaritzaren baimena baliogabetu ondoren hasi zuen deusezte prozedura udalak. Era berean, Goiuriko Kofradiak eta auzoko batek Bilboko 2. eta 5. epaitegietan udalaren kontra zabaldutako prozedura administratiboak ere amaitutzat eman zituen. Hala ere, udala horretan "erratu" egin zela dio Bilduk: "Astuariasko Gorenaren epaiaz gain, ezkutatu gura diren arrazoiak daude lizentzia baliogabetzeko".

Iñaki Totorikaguena alkateak dioenez, baimena baliogabetuta, ez dago kontra egiterik. "Ez da existituko. Ez du zentzurik jarraitzea". Gaia berriz hartuz gero, "dena aztertu beharko da berriro, baimena eman edo ez ere bai".

Alkateak dioenez, gaia berriz hartuz gero, "dena aztertu beharko da berriro"

> ATXONDO

Eskola legearen arabera eraiki zela dio epaitegiak

Euskalherria kaleko jabekideen elkartearen errekurtsoa atzera bota du Bilboko epaitegiak

> JOSEBA DERTEANO

2011ko otsailean hasi zituzten eskola berria eraikitzeko lanak. Handik hilabetera, eskola ondoko bizilagun talde batek obrak geratzeko eta udalak emandako lizentzia bertan behera uzteko eskatu zion udalbatzarrari. Besteak beste, lurrak ez zirela udalarenak zioten eta lizentzia ematean legehauste bat izan zela. Udalbatzarrak ez zuen eskaera onartu, eta obrekin jarraitzea erabaki zuen.

Ondorioz, Euskalherria kaleko jabekideen elkarteak (5-7 zenbakitakoak) errekurritu egin zuen erabaki hori administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian. Epaiak udalari eman dio arrazoia. "Jarritako errekurtsoa atzera botatzen dugu,administrazioaren jokabidea Zuzenbideagaz bat datorrelako", dio epaiak. Rosa Elizburu alkatearen esanetan, "guk eta aurreko gobernu taldeak uste izan dugu beti gauzak zuzen egin ditugula, eta epaiak arrazoia eman digu".

"Errekurtsoa atzera botatzen dugu, administrazioaren jokabidea Zuzenbideagaz bat datorrelako", dio epaiak

> BERRIZ

Belaunaldien arteko irteera egingo dute Sarriara, etzi

8 kilometroko ibilaldia egingo dute 09:30ean hasita

> AMAIA UGALDE

Belaunaldien arteko hartuemanak sendotzeko ibilbidea egingo dute Sarriara domekan, Berriz Ere taldeak eta udalak antolatuta. BBK paretik 09:30ean irtengo dute, eta zortzi kilometroko ibilbidea izango da, zailtasun txikikoa. Parte hartu gura duenak kiroldegian, Gizarte Ongizate zerbitzuan edo jubilatuen egoitzan eman dezake izena, eta domekan bertan ere egin daiteke.

Aurten, halako bost ibilbide prestatu dituzte. Gehienak Berriz inguruan badira ere, hurrengoa Urbiara egingo dute, ekainaren 2an. Iazko irteeretan batez beste 54 partaide izan zituzten. Balio eta bizipenak trukatzea da irteeren helburua.

ERROTARITXUENA

DURANGO

Estreinatu zure etxebizitza AURTEN

Bisita ezazu pisu pilotua eta sinistuko duzu

Aukera segurua eta arriskurik gabea

Merkatuko finantzaketa baldintzarik onenetan. Idatzizko bermea.

SabadellGuipuzcoano

946 46 20 41

www.sukia.com

www.solvia.es

sukia

Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

DURANGALDEA ASTEON

Intxortako kanpamentuen izen-ematea asteon

Oibarren (Nafarroa) izango da aurten Elorrioko Intxorta asti elkartearen kanpamentua. Uztailaren 1etik 12ra prestatu dute, 6 eta 16 urte bitartekoentzat. Gaur dute batzar informatiboa, eta izena emateko egunak maiatzaren 29a eta 31 dira. Kontakturako telefonoa 615 701 525 da.

Bigarren eskuko azoka egingo dute Montorretan

Domeka honetan, bigarren eskuko azoka berezia egingo dute Durangoko Montorretan, Simply hipermerkatuaren aparkalekuan. Standak kotxeen maleteroak izango direla aurreratu dute antolatzaileek. 10:30etik 14:30era izango da azoka, eta parte hartu gura duena 09:30ean agertzeko deia egin dute.

Pintxo pote gehiago Iurreta eta Durangoko tabernetan

Eguen iluntzetan tragoarekin batera pintxoa ateratzeko ohitura zabaltzen doa. Iurretan, atzo hasi zuten pintxo potea Batzokia, Gauargi, Daytona eta The Ramon Bar tabernek. Durangon, datorren astean hasiko dute 9 taberna gehiagok: Kurutziaga hotela, Lapiko, Leku Berri, Lupetza, Maite, Plateruena, Pol-Pol, Saltsan eta Urratsek.

Durangon, sexu dibertsitaterako ikuspegia lantzeko deia ikastetxeei

Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, adierazpen instituzionala onartu du Durangoko Udalak. Testuan, euren plangintzetan genero ikuspegia eta sexu dibertsitaterako ikuspegia sartzeko eskatu diete ikastetxeei, "gizartean nagusi eta arau diren genero patroiak betetzen ez dituzten pertsonen aurrean ez dadin egon aurreiritzirik, gaitzespenik eta aurkako jarrerarik".

ELORRIO

Argiñetako indusketen bigarren fasea hasi dute

>M. O.

Argiñetako gune arkeologikoaren indusketak aurrera doaz. Arkeologi Museoko kideek ekin diote bigarren faseari, iazko lanen emaitzak aztertu eta aurkeztu ondoren. Zurezko etxeak zituen herrixka baten zonalde bat eta hainbat motatako hilobiak dauzkan kanposantu bat identifikatu zituen taldeak. Herrixka eta kanposantua VI. eta XI. mendeen artean datatu dira, baina okupazioaren dataziorako, ez dute alboratu kristau aroaren hasiera.

Informazio eta hipotesietan sakontzeko egingo dute lana. Udalaren eta Aldundiaren arteko hitzarmenak ahalbidetu du ikerketa.

Interneteko tresna berri bat, udaleko gestioan gardentasuna lortzeko

Herritarrek udaleko hainbat datu ezagutu ahal izango dituzte, 'www.elorrio.net' atariaren bidez

> MARKEL ONAINDIA

Udal gestioan gardentasuna lortzea. Hori da udalaren helburua Interneteko tresna berriagaz. Unai Rementeria Aldundiko Presidentzia diputatuak eta Ana Otadui alkateak aurkeztu zuten joan zen barikuan. *www.elorrio.net* atarian dago erabilgarri. Horren bidez, herritarrek udaleko hainbat datu ezagutu ahal izango dituzte: egoera ekonomikoa, kargudunen soldata eta dietak, obra publikoen prozedurak, zerbitzuen kontratazioa... Aldundiak sustatzen duen *Udala zabaltzen* plataforma digitala da, eta Elorrio da ezarri duen lehenengo administrazioa.

> Aldundiak sustatzen duen 'Udala zabaltzen' plataforma da, eta Elorrio da ezarri duen lehenengo administrazioa

Ana Otadui alkateak esan zuen, udala zabala, hurrekoa eta parte-hartzailea izatea dela euren helburua.

Rementeria eta Otadui, joan zen barikuko prentsaurrekoan.

MAÑARIA

Auzolanak egingo dituzte ekainaren 1ean eta 8an

Lehenengo egunerako 30 lagunek eman dute izena, eta bigarrenerako 35ek; batzarra egingo dute gaur

> M.O.

Datozen asteburu bietan auzolanak egingo dituzte Mañarian, udalak sustatuta. Hain zuzen, ekainaren 1ean eta 8an batuko dira herritarrak beharrak egiteko. Apirilean frontoiko kristalak garbitu zituzten lehenengo apuntatu zirenekin, eta orain, beste zeregin batzuk dauzkate. Endika Jaio alkateak aurreratu duenez, lehenengo egunerako 30 lagunek eman dute izena, eta bigarrenerako 35ek. Gainera, kopurua handitzea espero dute. Horiekin guztiekin batzarra egingo dute gaur, 19:30ean, udalbatzarren aretoan. Orduak zehaztu eta lana planifikatzea; horiek dira gaurko bilkurarako asmoak.

> Alkateak azaldu du auzoetarako bide bazterrak garbituko dituztela aurtengo auzolanetan

Alkateak azaldu du auzoetarako bide bazterrak garbituko dituztela aurtengo auzolanetan. Iazko moduan, parte hartzen dutenekin bazkaria egingo dute ekainaren 22an, lana eskertzeko.

IZURTZA

Irailaren 7ra aurreratu dute San Tomasen ospakizuna

Jaiak asteburu bitan batzeko hartu dute erabakia

> JOSEBA DERTEANO

Aurten Erdoitzako Andra Maria Eguna asteburuan egokitzen da, irailaren 8ko domekan. Ohitura izaten da San Tomas eguna hurrengo igandean ospatzea, baina jaiak hiru asteburutan luzatu beharrean asteburu bitan batzeko, San Tomasen ospakizuna irailaren 7ra aurreratzea erabaki du udalak. Beraz, ospakizun egunak honela geratzen dira: jaietako lehen asteburua abuztuaren 30etik irailaren 1era (Santa Ageda eguna, azken hori), izango da. Bigarren asteburua irailaren 6tik 8ra izango da. Erdoitzako Andra Maria egunagaz amaituko dira jaiak.

Berbaz

Patxi Baztarrika Galparsoro | Ataun, 1958 | Hizkuntza Politikarako sailburuordea

“Elkarlana areagotu egin beharko dugu baliabideei etekin handiagoa ateratzeko”

Hizkuntza Politikarako sailburuorde lanera bueltatuta, Jaurlaritzak euskararen arloan dituen lehentasunak, euskararen beraren egoera, dirulaguntzak eta Tokikom bezalako elkarguneak berbagai hartuta erantzun ditu galderak Patxi Baztarrikak

Goiena

> GOIENA

Duela bi legegintzaldiko lanera bueltatu zara Jaurlaritzara. Oraingoak baino urte oparoagoak bizi izan zenituen orduan, diruari dagokionez. Zailagoa da egoera berrian lan egitea?

Gutxiagorekin gehiago egiten ahaleginduko gara, eta lehen egiten ziren gauzak beste era batera egin beharko ditugu orain. Elkarlana areagotu egin beharko dugu baliabideei etekin handiagoa ateratzeko. Baina dena ez da dirua. Esaterako, berrikuntza bat: euskarari zehar-lerroa onartuta, Jaurlaritzako sail bakoitzean euskara unitate bat sortuko dugu. Modu eraginkorrean bermatu nahi ditugu herritarrei aitortuak zaizkien hizkuntza eskubideak. Sail guztien inplikazio handiagoa lortu nahi dugu.

Zeri emango diozue lehentasuna?

Bi gauza nabarmendu ditugu. Batetik, helduen euskalduntzea jendarte elebidun orekatua lortzeko: 2013an, 2012an izan zuten finantziazio bera izango dute euskaltegiek, nahiz eta Jaurlaritzak %10 gutxiago eduki gastatzeko. Gainera, ikasleentzako dirulaguntzak berreskuratu ditugu 700.000 eurogaz, iaz Gobernuak ezabatu ondoren. Beste lehentasuna? Euskarazko hedabideak. Iazko kopuru berbera izango dute. Aurreko hiruzpalau urteetan, dirulaguntzak etengabe behera joan dira. Aurten, nahiz eta diru sarrerak txikitu, geratu egin dugu beherakada hori.

Zelan baloratzen duzu euskarazko hedabide ez publikoek Hekimen edo Tokikom bezalako elkarguneak sortu izana?

Oso garrantzitsuak dira euskarazko hedabide ez publikoak. Batetik, euskararen erabilera bultzatzeko, baina baita aniztasunari eusteko edo bultzatzeko ere. Horrek eskatzen du, hedabideak ahalik eta eraginkorrenak izatea, eta sinergiak eta elkarguneak sortzeko ahaleginak egitea. Jaurlaritzako aurrekontuan aurreikusita geneukan Tokikomekin bi urterako hitzarmena egitea, eta aurrekontua onartu ez denez, luzatutako aurrekontuan horretarako diru partidarik egon ez arren, aurkituko ditugu bideak aurreikusi genuen dirulaguntza izan dezan.

> *“Jendartea aldatu egin da: gaur egun, absurdoa da esatea 15 urteko gazte bati euskara zapalduta dagoela”*

Administrazioaren eta Tokikom edo Hekimen bezalako elkarguneen arteko elkarlanean sinisten duzu?

Bai, ezinbestekoa da. Ez herri aginteek, ezta herri ekimeneko erakunde edo taldeek ere, inork ezin du bakarrik jardun. Ez da komeni, eta elkarrekin gauza asko egin ditzakegu. Eta, elkarlana hedabideen artean ere bai. Hedabideen kontsumitzaileak diren horien beharrak asetzeko moduko produktuak egin behar dira, beti kontuan izanda kontsumitzaileak askotarikoak garela. Kontsumitzaileentzako erakargarriak izango diren produktuak egiteaz gain, beharrezkoa da aniztasuna bermatzea.

Euskara aurrera ala atzera doa?

Zalantzarik gabe, aurrera doa. Bereziki, EAEko errealitateagatik. Nafarroan euskarak izan duen bilakaera oso motela izan arren, eta Iparraldean atzeraka joan arren, euskararena hazkunde baten historia da. Horrek ez du esan nahi, ordea, euskarak etorkizun oparoa bermatuta daukanik. Erronka berriei modu txukun eta eraginkorrean erantzuten badiegu, aurrera egingo dugu. Munduan, hizkuntzak biziberritzeko ekimenei dagokienez, esku bateko hatzekin konta daitezke euskararen moduko kasu aurreratuak. Askok aitortzen dutena baino egoera hobea da euskararena, baina beste askok nahiko genukeena baino apalagoa.

Gazteen artean, ostera, ezagutza hazi egin bada ere, erabilera moteldu egin da, ezta?

Ezagutza handiagoa da erabilera baino, baina erabilera ere aurrera doa gazteen artean. Erabilera hori esparru formaletan hazi da bereziki, eta moteldu egin da esparru ez formaletan. Baina gazteen erabilera 15 urteko epean bikoiztu egin da. Nagusiki, hezkuntza sistemagatik. Egia da, hala ere, gaurko gazte euskaldunek ez dutela lehengoek baino gehiago erabiltzen. Arduratzeko datua da, baina ez larritzekoa. Gazte horien gehienen lehen hizkuntza, etxekoa, ez da euskara, gaztelania baizik; hori oso faktore garrantzitsua da.

Administrazioek, euskara elkarteek, hedabideek... lan egiten dute euskararen alde, baina jendarteak begirune txikiagoa dio euskarari?

Jendartea aldatu egin da, eta euskal hiztunak ere aldatu egin dira. Gaur egun, absurdoa da esatea 15 urteko gazte bati euskara zapalduta dagoela, ikasketa guztiak euskaraz egin baditu. Esan nahi dut, behar dela kontzientzia bat indartzea euskararen alde, elebidunok hautatu egiten dugulako zer hizkuntza erabili. Baina jendarte zabal honetan, kontzientzia ez da izango politikoa nahitaez. Beste era batekoa izan beharko du.

JATETXE GIDA

ÑAM!

PEDRO JUAN

San Antonio, 1 BERRIZ
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

ÑAM!

NERE JATETXEA

San Agustinalde, 4 DURANGO
Tel.: 94 620 39 10

Eguneko menua. Eguerdietan: entsaladak, razioak eta plater konbinatuak.
Ostegunetik igandera karta berezia gauero.

ÑAM!

PLATERUENA kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak. Askariak.

ÑAM!

HURI BARRENA

Huribarrena, 8 OTXANDIO
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak. Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.

Profesional onenak zure zerbitzura!

ÑAM!

JULIANTXU

Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 94 682 40 77

Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.

Kultura

> MUSIKA

Kilauea taldea izan da Maketa Lehiaketaren saridun nagusia

Krome taldearen 'Ametsetan' kantak jaso du euskarazko abesti onenaren saria

ITSASO ESTEBAN

Joan zen barikuan, Durangoko Plateruenean aritu ziren Durangaldeko Maketa Lehiaketaren finalera ailegatutako lau taldeak: Kilauea, Krome, Doktors Klub eta Raxfer. Elorrioko Kilauea laukoteak lortu zuen 1800 euroko sari nagusia.

"Kontzertu aurretik nahiko urduri egon ginen, baina esperientzia itzela izan zen: eskaini genuen kontzertuagaz gustura geratu ginen, eta entzuleek ere ederra izan zela esan digute", dio Jon Revilla taldekideak.

Azken urte bietan 70 kontzertutik gora eskaintzeaz gainera, kanta berriak ere konposatu dituzte. Maketa Lehiaketako diru-saria, hain zuzen, kanta horiek grabatzen inbertituko dute: "Taldea ezagutzera emateko egin genuen maketatxo bat badaukagu, baina CDa grabatu gura dugu orain, disko luzeagoa". Ahalik eta arinen grabatzeko asmoa dute.

Sari nagusiaz gainera, euskarazko kantarik onenaren saria ere banatu zuten barikuan,

> Kilauea: "Taldea ezagutzera emateko maketatxo bat badaukagu, baina CDa grabatu gura dugu orain"

Plateruenean: Iurretako Krome talde gaztearen *Ametsetan* izeneko kanta hautatu zuen epaimahaiak. Hardcore estiloko musika egiten duen boskoteak irabazi du, beraz, 500 euroko saria. Ahots ekipamendua erosteko inbertituko dute Krome taldekoek sari hori.

"Primeran pasatu genuen kontzertuan: lagun mordoa etorri zen, eta giro oso polita sortu zen", diote. San Juanetan Iurretan jotzeko eskaria ere jaso zuten, gainera, Kromekoek barikuko kontzertuaren harira.

> Krome: "Primeran pasatu genuen kontzertuan: lagun mordoa etorri zen, eta giro oso polita sortu zen"

Antolatzaileen berbetan, "harrera ona" izan du Durangaldeko Maketa Lehiaketaren lehenengo edizio honek: "Guztira, 19 musika talde aurkeztu dira". Horietatik, epaimahaiak aukeratu dituen bederatzi taldeek kontzertuetan erakutsi dituzte euren kantak Durango, Abadiño eta Zornotzako aretoetan. Gaztedi Planean parte hartzen duten Iurreta, Durango, Abadiño eta Zornotzako udalek bultzatu dute lehiaketa hau.

> LITERATURA

'Egia esan' aurkeztu du Peru Magdalenak

Elkar argitaletxeagaz kaleratu du Peru Magdalena idazle durangarrak bere lehenengo eleberria

Bere lehenengo eleberria aurkeztu du Peru Magdalena durangarrak asteon. Elkar argitaletxeagaz kaleratu du, eta *Egia esan* du izenburua. Aurretik umeentzako literaturan, ipuinetan eta poesian ibilia da Magdalena, eta bestelako generokoa da argitaratu berri duena: nobela.

Haurrekin badauka zerikusirik, baina, *Egia esan* nobela honek: aitatasunari buruzko hainbat gogoeta biltzen ditu.

Argitaletxeak zabaldu duen liburuaren erreseinaren arabera, "Arri aita desagertu zenetik hankamotz" dabilen Kimu semearen ikuspegitik kontaturikoa da *Egia esan,* eta kantak, poemak, eta lekukotasunak biltzen ditu.

Aitak aspaldi bidaia batean idatzitako koaderno beltza lagun, aitaren bidaia berregingo du semeak: "Barruko puzzlea berregin eta aitaren zuztarretaraino heldu guran".

> "Aita desagertu zenetik hankamotz" dabilen Kimu semearen ikuspegitik kontaturikoa da istorioa

> MUSIKA

Gabriel Arestiren poesia Oskorri taldearen kantuetan, Abadiñon

San Trokaz jaien egitarauan eskainiko du Oskorrik gaur gaueko saioa

Gaur, 22:30ean hasita, probalekuan eskainiko du Oskorri taldeak *Gabriel Aresti Bizsitan* ikuskizun berria. Taldearen formazio klasikoagaz, baina "era akustikoagoan" dihardu Oskorrik bira honetan.

1971n Deustuko unibertsitateko paraninfoan lehenengo kontzertua eskaini zuenetik, harreman estua, "sakona", izan du Oskorrik Gabriel Aresti poetarekin, eta bere burua euskaldundu zuen poetaren letra ugari kantatu ditu. Duela hiru hamarkada sortu zen harreman hori, eta iturburura bueltatu gura du ikuskizun honegaz Oskorrik: bestak beste, "egungo egoera latz honetan izugarrizko gaurkotasuna gorde dutelako" Arestiren berbek. Oskorriren sortzaileen berbetan, "Gabrielen eragina ukagaitza da, ez soilik kantetan, baita gero garatu ditugun hainbat arlotan ere".

Harri eta herri edo *Harrizko herri hau* poemen egilearekin batera sorturiko hainbat kanta joko ditu Oskorrik Abadiñon.

> ANTZERKIA

Obra berria estreinatuko du Gora Ta Gora adinekoen taldeak

'La Bodeguilla' estreinatuko du, maiatzaren 31n, Durangoko antzerki taldeak

> ITSASO ESTEBAN

Izaskun Asua taldearen zuzendariak hainbat antzezlan laburrekin osaturiko obra eskainiko du maiatzaren 31n eta ekainaren 2an, Durangoko Gora Ta Gora antzerki taldeak, adinekoen V. antzerki jardunaldian.

Durangoko alkatea Gora Ta Gorako taldekideekin batu zen atzo, jaialdiaren aurkezpenean; hain zuzen, antzerki taldea sortu zenetik bertan diharduen Anunciación Maras eta antzerkian hasiberria den Braulio Saizekin. Azaldu zutenez, 18 urte dira taldea sortu zutela, eta hainbat kide berri batu zaizkie ikasturte honetan: maiatzaren 31n estreinatuko duten obran, 18 aktorek jardungo dute oholtzan.

Durangoko 60 eta 85 urte bitarteko artisten emanaldiez gainera, beste bi ere izango dira: maiatzaren 27an, *Recuerdos* obra eskainiko du Errenteriako Ausardi taldeak; eta 29an, *Los maitines del padre Antonio*, Zumarraga-Urretxuko Irrimakilak. San Agustinen izango dira emanaldi guztiak, 19:00etan.

> ANTZERKIA

Markeliñe taldeak ohorezko saria jaso du Leioako Umore Azokan

Joan den asteburuan Leioan egin zuten Kaleko Artisten Umore Azokan saritu dute Zornotzako Markeliñe antzerki taldea. Jaialdi horretako Ohorezko saria jaso du Markeliñek, epaimahaiaren berbetan, "antzerkigintzan, ahotsa kasik altxatu barik emandako ia hiru hamarkadengatik, eta langile nekaezinak, profesional apartak eta ondo egindako antzerkigintzaren enbaxadoreak" izateagatik.

Aurten, 26.000 ikusle baino gehiago batu ditu Leioako Umore Azokak, eta 125 emanaldi eskaini dituzte Euskal Herriko eta nazioarteko taldeek. Gaitzerdi Teatroa taldearen *Suz (A fuego)* lanak jaso du 2012ko Euskadiko ikuskizunik onenaren saria, eta La Passante taldearen *Rue des Dames*-ek nazioartekoa.

> EGITARAUA

Herriko 19 kultur eragileren lanari esker antolatu dute Euskal Astea

Gaurtik ekainaren 16ra arteko kultur egitaraua aurkeztu dute Durangon

Durangoko hamabi elkarteren ordezkariak eta udaleko ordezkariak izan ziren 2013ko Euskal Astearen aurkezpenean. Lehenengoz parte hartuko dute egitarau horretan eragile horietako batzuek: San Antonio-Santa Rita ikastetxeak eta Arte Bizia elkarteak, esaterako.

Irakasle gaiztoak antzezlana prestatzen dabiltza San Antonio-Santa Ritako ikasleak, eta ekainaren 3an eta 4an antzeztuko dute. *Las Durangas, bizi bizirik* ikuskizuna eskainiko dute, bestalde, Arte Bizia elkartekoek: Inkisizioak XVI. mendean hil zituen emakume durangarren inguruko ikuskizuna da. Ekainaren 16an eskainiko dute, Andra Mariko elizpean.

Urteetan Euskal Astearen parte izan diren ekimenak ere

ez dira faltako 2013ko Durangoko Euskal Astean: eskolarteko pintura lehiaketaren erakusketa, Julene Azpeitia Literatur leihaketaren eta Durango Hiria txistu lehiaketaren sari banaketak, dantza jaialdiak, eta askotariko kalejirak, besteren artean.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA
Bertsolaria

Ama euzkeriari azken agurra

Datorren maiatzaren 25ean, 172 urte beteko dira Felipe Arrese Beitia idazle otxandiarra jaio zenetik. Elizondoko Lore Jokoetan egin zen ezagun Arrese Beitia, *Ama Euzkeriari azken agurra* izeneko bertso sortagatik. "*Neure biotzeko amatxo zarra, aintxinako ama Euskera/ (...) Zaurien zauriz galdu galduta, amatxo zoaz iltera!*" zioen lehen bertsoan.

Mende bat baino gehiago igaro da Otxandioko poetak aurreikuspen tamalgarri hura irudikatu zuenetik, eta badirudi azken urteotan hilzoriari eutsi baino ez diogula egin. Egia da geroz eta baliabide gehiago ditugula euskaraz aritzeko eta kontsumitzeko; eskolan, musikan, zineman, interneten, telebistan... Baina egunerokotasunean, zertan ari gara?

Lehengo batean kontatu zidatenez, eskualdeko herri bateko nerabe batzuek euskarazko kurtso intentsibo batean eman dute izena datorren uztailerako; 16 urtera arte D ereduan ikasten egon arren, ez baitira gai euskaraz ganoraz hitz egiteko, eta instituturako ondo prestatu nahi ei dute. Estuasun itzela sartzen zait antzeko zerbait entzuten dudan bakoitzean, are gehiago ingurukoek horren aurrean zirkinik ere egiten ez dutela ikustean.

Ez dut ulertzen zelako Euskal Herrian bizi nahi duen herri mugimenduren bateko ekimenetan parte hartu ondoren poteoan gazteleraz dabilenak, haurrari euskaraz eta emazteari erdaraz berba egiten dion aita gazteak, hizkuntza biziberritzea dendenon zeregina dela ikusten ez duenak... Ez dut ulertzen.

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK
muruetatorre 2C blokea, behea - 48200 Durango - Tel.: 94 681 99 51

momotxo
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 94 681 10 06

AUTOEN GEHIGARRIA

Mantenimendua eta konponketak norbere eskuekin, erraz eta merkeago

Iurretako Repara Tu Vehículo zerbitzuan gero eta bezero gehiago daukate; ohiturak aldatzen dabiltza, eta mantenimenduak edo konponketak norberak egiteak aurrezteko aukera ematen du

"Olio aldaketak, pastilla aldaketak, erroberak... Halako gauzak egiten dira, batez ere"

Hainbat profiletako jendea joaten da bertara, baina gehienbat adituak ez direnak

Azken boladan goraka doan zerbitzua da Repara Tu Vehículo. Autoaren mantenimendua eta konponketak norberak egiten ditu zerbitzu honen bidez. Box bat alokatu eta bertan daude lanerako erremintak. Gainera, behar izanez gero, profesionalen babesa eta aholkua ere eskaintzen dute.

Repara Tu Vehículo ez da beste edozein tailerren modukoa, gauza desberdina da. Horrela dio Alain Mugerza arduradunak: "Jende askok uste du mekanikarien konpetentzia garela, baina hau hutsune bat betetzera dator, gehigarri bat da". Mugerzaren esanetan, "mekanika arina" egiten da batez ere: "Olio aldaketak, pastilla aldaketak, erroberak... halako gauzak egiten dira batez ere".

Jende guztiarentzako zerbitzua

Praktikotasuna eta erosotasuna eskaintzen dituzte bertan. Bost gune edo box dauzkate autoetarako, eta beste bat autokarabanetarako. Lan egiteko makinaria ere eskaintzen dute.

Hainbat profiletako jendea joaten da bertara mantenimendu lanak egitera, baina gehienbat, adituak ez direnak. Besteak beste, gazteak, automozio ikasleak, jubilatuak... Ez da zertan mekanikaria izan behar bertara joateko.

Mallabienan, autoa zaindu eta konpontzeko leku egokia

Iurretako Mallabiena auzoan dago Repara Tu Vehículo, saihesbidea pasatu eta segituan. Box bat ordu erdiz alokatzeak 9,60 euro balio du, eta ordubetean 18 euro. Produktu edo piezaren bat behar izanez gero, bertan erreserbatu, eta alokatutako egunerako ekartzen dute. Goiz zein arratsalez egoten dira bertan. Lan gehienak ordu erdi bueltakoak dira; ordubetegaz nahikoa izaten da mantenimenduak egiteko; adibidez, olioaren iragazkia eta erroberak aldatzeko. Norberak egin behar du lana, baina arduradunek aholkua eta babesa ematen dute.

Mekanikaren munduan murgiltzeko modu bat

Mekanikaren munduan edota automobilismoan murgiltzen hasi direnentzako ere aukera moduan ikusten du Mugerzak Repara Tu Vehículo, eta hori sustatzen ahalegintzan dira. Adibidez, slalometan parte hartzen dabilen gazte bat babestu dute. Gainera, ibilgailuak jasotzeko aparatua doan eskaintzen diete halako lehietan dabiltzan gidariei.

Mekanikaren arloa ezagutu, pausoak eman eta zaletasuna lortzeko bide bat ere bada Iurretako zerbitzua.



Egoki gidatuz dirua aurreztu eta ingurumena zaindu daiteke

Martxa egokia aukeratzea da, besteak beste, adituek ematen duten aholkuetako bat

> JONE GUENETXEA

Egoki gidatzeak poltsikoan eragin dezake, baita ingurumenean ere. Helburu horretara heltzeko, adituek hamar aholku ematen dituzte. Erregaia garestitzeak neurri horiek hartzea geroago eta garrantzitsuagoa izatea eragin du.

1. Martxak ondo aukeratzea komeni da: energia aurreztea helburu duen IDAE elkarteak ahalik eta martxa luzeenarekin gidatzea aholkatzen du. Gidari on batek kotxea isiotu behar du enbragatu edo azeleratu barik. Lehenengo martxa sartu, astiro azeleratu eta bigarren martxara aldatu behar du segundo batzuk pasatu eta gero, lehenengo martxa gehien kontsumitzen duena baita. Ondoren, martxak igo beharko dira bosgarrenera arte, 50 km/orduko abiaduratik hasita auto txikietan, eta 60 km/orduko kotxe handietan.

Behin eta berriro azeleratzea eta frenatzea ez da ona kotxerako, ez eta kontsumorako ere

Abiadura handiegian joatea ere ez da ona. Kontsumoa asko handitzen da 100 km/ordutik aurrera

2. Enbragea ondo sartzea: jende askok enbragea txarto erabiltzen du. Ez da erabili behar frenatzeko, ez eta motorra isiotzeko ere. Martxa batetik bestera azkar pasatzea komeni da.

3. Abiadura uniformea: behin eta berriro azeleratzea eta frenatzea ez da ona ez kotxerako, ez eta kontsumorako ere. Abiadura handiegian joatea ere ez da ona, 100 km/orduko abiaduratik aurrera kontsumoa asko handitzen delako.

4. Aurreikuspenagaz jokatu eta motorragaz frenatu: ez da azken momentuan frenatu behar, aurreikuspenagaz jokatu eta aurretik astiro frenatzea komeni baita. Jaitsieretan ez da joan behar itopuntu edo *punto muerto* delakoan, kontsumoa handitzen delako eta frenoak gastatzen direlako. Kurba batean sartu aurretik, oina altxatu behar da azeleragailutik, eta beharrezkoa bada, martxa jaitsi.

5. Tenperatura egokia izan kotxe barruan: udan 23-24 gradura joan daiteke, eta neguan arropa gehiagogaz. Abiadura handian ez da leihorik zabaldu behar, kontsumoa handitu egiten delako. Aire egokituak ere asko kontsumitzen du.

6. Errobera egokiak: autoaren erregai kontsumoaren %20 erroberena da.

7. Mantenimendua zaindu: mailak eta iragazkiak ondo mantentzeak erregaia aurreztea dakar, eta gutxiago kutsatzen da.

8. Kotxea ez gehiegi kargatu: ibilgailuan behar dena baino pisu handiagoa eroateak edo pisu hori gaizki banatzeak kontsumoa handitzen du. Kotxe gainean parrilla bat eroateak gastua %39 handitu dezake 120 km/orduko abiaduran.

Abiadura handian ez da leihorik zabaldu behar, kontsumoa handitu egiten da-eta

9. Motorra amatatu: geldi dagoen kotxe batek motorra isiotuta badu, 0,7 litro/ordura arteko kontsumoa izan dezake.

10. Segurtasuna: gidatzeko aholkuok jarraitzeak bide segurtasunean eragiten du.

IGOR URIEN | 18 urte | Europako F3 Openeko pilotua

“Azterketa bat hasi aurretik urduriago nago lasterketa hasi aurretxoan baino”

Europako F3 Openean dabilen arren, ikasketak ez ditu baztertu eta ingeniaritza mekanikoa ikasten dabil Arrasaten



> JOSEBA DERTEANO

Bizimodua aldatu zaio, baina berak betiko lekuan jarraitzen duela dio. Biharko egunean du begi bat, eta kirol ibilbidearen ostean bestea. Izan ere, “batek daki zer gertatuko den bihar”.

Ingeniaritza mekanikoa ikasten zabiltza Arrasaten. Zergatik aukeratu duzu adar hori?

Nik egiten dudana, etxean bizi izan dudana... dena dago adar horri lotuta. Azkenean, interesatu eta gustatu egiten zaizu. Pilotuak monoplazan bizi duenari bestelako jakintza gehitzen badiozu, ikuspuntu zabalagoagaz aztertu daitezke egoerak. Monoplazako alderdi askok mekanikagaz hartu-eman handia daukate. Gainera, kirola ez da betiko, lehenago edo geroago, amaitu egiten da eta nire asmoa gustatzen zaidan horretan luzaroan jarraitzea da. Batek daki zer gertatuko den bihar.

Ikasketak eta Formula 3a. Ardura asko dira. Zelan daroazu?

Dena batera eroatea apur bat kantsagarria da. Antolaketa egokia behar da. Arrasaten eskaintzen didaten malgutasunagaz, eroan daiteke. Eskerrak eman gura dizkiot unibertsitateari.

F3an hasi zarenetik bizimodua asko aldatu zaizu?

Ni berdin sentitzen naiz. Orain denbora gutxiago dut, hori horrela da, baina pertsona lez, ez dut uste aldatu naizenik.

Azterketa bat hasi aurretxoan ala lasterketa bat hasi aurretxoan urduriago?

Normalean, azterketa bat hasi aurretik urduriago nago lasterketa bat hasi aurretxoan baino. Lasterketa berezia bada, euria hasi duelako edo autoa zelan dabilen ikusi gura duzulako, beharbada, baina bestela azterketak estresagarriagoak egiten zaizkit.

Ayrton Sennak zioen: ‘Bigarren geratzen dena, galtzaileetan aurrena da’. Ados zaude?

> *“Kirola ez da betiko, amaitu egiten da eta nire asmoa gustatzen zaidan horretan luzaroan jarraitzea da”*

Lasterketan irteten duzun postuaren arabera, ados nago eta ez nago, biak. Nik erregulartasunari garrantzi handia ematen diot. Autoan zoazela baloratu egin behar duzu arriskatzeak merezi duen ala ez. Argi dago denoi gustatzen zaigula irabaztea. Horretarako lehiatzen gara. Baina faktore asko daude tartean. Ez dute pisu bera txapelketako aurreneko lasterketak eta azkenak.

Dena dela, iruditzen zait Sennaren esaldiak monoplazen txapelketen esentzia jasotzen duela.

Ados nago, bai, baina esaldi horrek ere baditu bere ertzak. Bigarren irten eta bigarren amai-

tzeak emaitza txarra dirudi, baina hirugarrenagaz izandako borroka gogor baten ostean etorri bada… Baloratzeko moduko emaitza izan daiteke.

Hain bizkor, hain tentsioan, buruz buruko bat irabazteak handia izan behar du.
Tentsio handiko uneak dira. Muga-mugan goaz, bata besteari rengandik oso gertu. Ukitu txiki bat eta kanpoan geratu zaitezke. Horrelako buruz buruko batean garaile irtetea itzela da, poztasun handia ematen du.

Monoplazan odol berokoa zara?
Aurreko postuetan irtenez gero, *amarrategi* samarra naiz. Atzean banago, egia esanda, arriskatzea gustatzen zait edo arriskatzeko behar hori ikusten dut. Neurria hartzen ikasi egiten da.

> *Aurrean irteten badut 'amarrategi' samarra naiz; atzetik irtenda, arriskatzeko behar hori ikusten dut"*

Europako F3 Openeko lehenengo podiuma lortu duzu bigarren lasterketan. Zer sentzazio utzi zizkizun asteburuak?
Asteburu horretan ondo joan ginen. Sailkapen saioan pneumatikoak berotu eta itzuli azkarra egitera nindoala bandera gorria atera zuten. Pena. Lasterketan nahiko atzetik irtenda, ez neukan askorik galtzeko, kakotx artean esanda. Irteeran eta lehenengo eta laugarren bihurguneen artean, zortzi auto aurreratu nituen. Nire kategorian laugarren nindoala, hirugarrena aurreratzea kostatu zitzaidan; bazekien ateak ixten. Hor denbora baliotsua galdu nuen. Ondoren, bigarrena baino azkarrago nindoan, apurka denbora jaten nion, baina ez nuen harrapatzeko denborarik izan.

> *Erregulartasunari garrantzi handia ematen diot; autoan baloratu egin behar duzu arriskatzeak merezi duen ala ez"*

Taldeagaz hartu-eman ona duzula azpimarratu duzu sarritan.
Alde horretatik ez dut inolako kexarik. Gustura nago nire taldeagaz. Erabakiak denon artean hartzen ditugu. Injineruak, Emilio de Villotak (semeak)… batu eta erabakiak baloratzen ditugu. Batzuetan asmatu egiten da, eta beste batzuetan ez, baina erabakiak hartzeko dira.

"Edozein karreratan eta edozein kotxegaz pasatuko nuke ondo"

Monoplaza lehiakor barik, pilotua alferrik ahaleginduko da eta pilotu abilik barik, monoplaza lehiakorrak ez du ezertarako balio. Bata bestearen menpekoak dira. Ondo konpontzea beste erremediorik ez dute. Urienek argi du hori. Egunen batean hemen inguruko igoeraren bat probatzea ere gustatuko litzaiokeela dio gazte abadiñarrak.

Posible da auto batekaz haserretzea eta adiskidetzea? Badago hartu-eman, zelan esan, pertsonal hori?
Nik kotxeak makinen moduan ikusten ditut. Autoei ez diet izenik ipintzen Vettelen moduan.

Zuen errendimendua autoaren baitan dago. Ehuneko zenbat da autoa eta zenbat pilotua?
Baldintza minimoa da auto lehiakorra izatea. Euria ari badu edo egoera konkretu batzuetan, pilotuen eskuak asko esan gura dute, baina bestela, autoa ez bada maila onekoa, oso gaitza da. Baina kotxea ondo joatea denon ardura da, talde lana. Denok irabazi eta denok galtzen dugu.

Formula 1a urrun ikusten duzu?
Ez dago urrun, baina faktore askok bat egin behar dute: unea, zortea, denboraldi ona egitea, finantziazioa… Baina bene-benetan diotsut: horri ez diot garrantzirik ematen. Egunetik egunerakoa bizi gura dut. Heltzen bada? Ederto. Ez dela heltzen? Gure kotxeagaz inguruko lasterketetan ibiliko naiz. Edozein karreratan eta edozein kotxegaz pasatuko nuke ondo.

18 urte dituzu. Karnetik baduzu? Hala bada, zer auto duzu?
Badut karneta eta normalean, amaren Nissan Terranoagaz ibiltzen naiz. Bizkor joateko zirkuituak daude, errepidean astiro-astiro hobeto, puntuekin-eta estuasunik ez izateko.

Errepiderako zer kotxe izatea gustatuko litzaizuke?
Asko. Beti gustatu izan zaizkit kotxe potenteak, M3a kasu. Niretzako zein erosiko nukeen? Kontua da, 120 kilometro ordukotik ezin daitekeela pasatu, eta txipa aldatu ezik, okerrerako izan daiteke. Hobe abiadura mugara heldu ezin duen katxarro bat erosi (barreak); horrela, buruko min gutxiago.

Inoiz izan duzu errepideko lasterketak probatzeko tentaziorik?
Beti izan dut gogo hori, baina karneta behar zenez, orain arte ezin izan dut. Orain badut karneta. Aukera izango banu, lasterketaren bat lehiatzea gustatuko litzaidake. Nire helburua ondo pasatzea izango litzateke, probatzea. Egia esanda, hemen inguruko igoeraren bat egitea gustatuko litzaidake. Baina korritzeko kotxea behar da.

Durangalde Racing Elkarteari amua botako diogu?
Ez ote da askotxo eskatzea? (barreak).

AITOR BALIER | Autoeskolako irakaslea |

“Bost egunean teorikoa ateratzeko gaitasuna lortu dezake ikasleak”

Elorrioko Solozabal autoeskolako irakaslea da Aitor Balier. Autobus eta kamioi gidariak prestatzen dihardu azkenaldian

> ITSASO ESTEBAN

Elorrioko Solozabal autoeskolako irakaslea da Aitor Balier. Aitaren Durangoko Ezkurdiko autoeskolan hasi zen lanean, eta hura itxi zutenean, Elorrion hasi zen lanean.

Zelan dago sektorea?
Krisi egoera orokorraz aparte, arazo estrukturala daukagu: jaiotza-tasa murrizten doanez, urtean-urtean gero eta jende gutxiagok betetzen ditu 18 urte.

Orduan, adin nagusitasuna eta karneta ateratzea ez daude hain lotuta orain?
Orain ere horrela da, bai: lana topatzeko aukera moduan ikusten dute karneta. Gaur egun, 18-19 urteko gazteen portzentaje handienak karneta dauka, edo ateratzeko asmoa dauka behintzat. Badaude beste batzuk, gainera, 17 urtegaz udan teorikoa atera eta 18 betetzean praktikorako prestatzera datozenak.

Lana topatzeko aukera moduan ikusten du jendeak eskaintzen duzuen karnet profesionalen sorta ere?
Bai, baina baimen profesionalen alor horretan igartzen da krisia batez ere, autobus eta kamioietarakoetan: kamioiak geldi daudela ikusita, “zertarako aterako dut baimena?”, dio jendeak.

Ikasleak azterketa teorikorako prestatzen edo bidean ibiltzen zara gehiago?
Batez ere bidean ibiltzen naiz, baina ikastaro trinkoetan teorikoa ere ematen dut. Ikastaro trinko horietan, astebetean prestatzen dugu ikaslea azterketa teorikorako: bost egunean teorikoa ateratzeko gaitasuna lortzen du ikasleak. Lehenengo bi-hiru egunetan, irakasleak gaiak azaltzen ditu, eta gero, sistema informatiko “inteligente” batekaz, gehien huts egiten duen horretan trebatzen dugu ikaslea. %95ak gainditzen du.

> “*Jendeak oso ondo erantzun du; gero eta gehiago dira autoeskolan ere euskaraz jardutea aukeratzen dutenak*”

Teorikoa euskaraz prestatzeko aukera eskaintzen duzue, ezta?
Bai, euskarazko aukera hori bultzatu guran gabiltza duela bi urtetik hona, eta jendeak oso ondo erantzun du, orain arte: gero eta gehiago dira autoeskolan ere euskaraz jardutea aukeratzen dutenak.

Autoari buruzko galderak egiten dituzte orain azterketa praktikoaren hasieran, ezta?
Bai, hala da. Nik beti eman izan dizkiot ikasleari oinarrizko azalpen batzuk autoaren mantenimenduari buruz: zelan begiratzen den olio maila, non dagoen bateria... Orain, hori edota dokumentazioa ere eskatu diezazukete azterketa praktikoa hasi orduko.

Bide batez, zelan hartu behar ditugu biribilguneak?
Kanpoko erreietik joan behar dela dio arauak. Norabidearen arabera, beste erreiak ere erabili daitezke. Barruko erreietik bazoaz, baina, biribilgunetik ateratzerakoan beti izan behar duzu kontuan kanpokoak duela lehentasuna.

Zer duzu zure lanetik gogokoen?
Kotxea martxan ipintzen ere ez zekiena eboluzionatzen ikustea gustatzen zait gehien: oso betegarria da.

Irakasleak psikologiagaz jokatu behar du ,“ikaslearen arabera”

Azterketan eskatuko diotena baino gehiago eskatu behar dio, Aitor Balierren esanetan, autoeskolako irakasleak ikasleari. “Arazoak kudeatzen ikasi behar du ikasleak: gutxinaka estutzen joan behar duzu, ikasleak esperientzia hartu dezan”. Hala ere, beti premisa bategaz jarduten duela ere kontatu digu Balierrek: “Ikastera datorrenak beti egingo du ahal duen ondoen, bere interesa hori da”. Abiapuntu horregaz, bere lanerako hain beharrezkoa den pazientzia ez galtzea lortzen du.

Psikologiagaz jokatu behar du autoeskolako irakasleak: “Ikaslearen arabera jokatu behar duzu: segurtasun falta sumatzen diozun ikaslea gehiegi estutzeak ez du fruiturik ekarriko. Bista izan, eta handiusteko datorrenagaz kontrako jarrera hartu behar duzu: baretu”.

Azkenaldian, kamioi, autobus eta motorren arloan dihardu Aitor Balierrek Azpeitian beharrean. Elorrioko Solozabal autoeskolako autoagaz Durangaldean kilometroak egiten ariko da datozen hilabeteetan.

SOLOZABAL autoeskolak
• TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen du.
• CAP ikastaroak profesionalentzat
• Teoriko orokorra euskaraz ONLINE
HEMEN GAUDE:
Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO

‘Social car’: kotxea partikularren artean partekatzeko aukera ematen duen zerbitzua

Kotxea erabiltzen ez duzun egunean errentan utzi dezakezu eta libre dagoen egunei errentagarritasuna atera

Kotxea ‘Social car’-en bidez errentan jarri gura duenak webgunean izena eman eta aseguru berria egin behar du

Baten batek autoa errentan hartu gura badu, jabeari zuzenean heltzen zaio erreserba egiteko mezua

> JONE GUENETXEA

Pertsonatik pertsonara autoa alokatzeko zerbitzua da *Social car*. Kotxearen jabeari errentan emateko aukera eskaintzen dio ibilgailua behar ez duen denboran. *Social car*rek bitartekari egiten du kotxearen jabearen eta alokatu gura duenaren artean. Erabilgarri dauden autoak ezarrita duten sistemaren bidez aztertzen dituzte. Ibilgailuaren jabeak onartu eta bertan behera utzi dezake erreserba eskaera.

Bi aldeetatik izan daiteke zerbitzua interesgarri: alde batetik, jabeak kotxea geldi dagoen denbora errentabilizatzen du. Bestetik, erabiltzaileak dirua aurrezten du. Ibilgailuak orduka, egunetan, asteetan zein hilabeteetan alokatu daitezke. Ibilgailuak jabeen aparkalekuetan egoten dira.

Kotxea *Social car*ren bidez errentan utzi gura duenak izena eman behar du webgunean bertan, eta beharrezkoa da aseguru berria egitea. Baten batek autoa errentan hartu gura badu, jabeari zuzenean heltzen zaio erreserba egiteko mezua, eta baietz edo ezetz esateko aukera du. Prezioa, berriz, jabeak ipintzen du.

Alokairu epea amaitzen denean, kotxea erabili duenak jabeari bueltatzen dio. Momentu horretan autoaren egoera elkarrekin aztertzen dute (gasolina depositua, kilometroen kopurua...). Arazoren bat sortuz gero, 24 orduan *Social Car*rekin hartuemanetan jarrita, beraiek konpontzen dute dena. Bueltatzerakoan atzerapena egonez gero, konpentsazio ekonomikoa ematen dute.

Kotxea partekatuz

Lanera edo ikastera joaterakoan autobideko ordainlekuan eta gasolindegian soldataren zati handi bat uzten dute hainbat lagunek. Egoera horren aurrean, kotxea partekatzea eta gastu horiek elkarregaz ordaintzea erabakitzen dute askok. Aldi berean, ingurumenaren aldeko apustua egiten dute, hainbat ibilgailutan beharrean bakarrean bidaiatuz. Izan ere, kasu askotan garraio publikoa erabili daitekeen arren, beste askotan, autoa hartzea beste aukerarik ez da egoten. Kotxea partekatu dezakeen beste inor ezagutzeko iragarkiak jartzea komeni da.

GAURSAN HITZEMATEN DUGU ZURE AUTOAZ HARRO EGONGO ZARELA

RENAULT CLIO DYNAMIQUE
90 HP
2012an matrikulatua
10.500€*

RENAULT MÉGANE DYNAMIQUE**
130 HP
2011an matrikulatua
11.600€*

RENAULT LATITUDE EXPRESSION
150 HP
2011an matrikulatua
16.950€*

RENAULT SCÉNIC EXPRESSION
105 HP
2012an matrikulatua
14.950€*

RENAULT OCASIÓN

EGON ZAITEZ HARRO ZURE AUTOAZ

*Prezio horietan guztietan sartuta dago bigarren eskuko ibilgailuentzako Pive Renault plana eta 4.000 €-ko finantziazioa Renault Finanzacionesekin. Gerta daiteke bistaratutako bertsioa bat ez eskaintzan agertzen den bertsioarekin. Eskaintzak izakinak agortu arte dira baliagarriak.
**Irudiko modeloa: Mégane III Expression.

Renault gomendatu elf

RENAULT

GAURSA
ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. DON DIEGO LOPEZ HAROKO KALE NAGUSIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO
LETXUNBORRO HIRIBIDEA, 89. TEL. 94 363 91 22. IRUN. OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL. 94 382 09 74. EIBAR
www.gaursaautoak.com

BILBO BERRI
JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU
www.bilboberri.com

Iritzia

> GUTUNAK gutuna@anboto.org eguazteneko 17:00ak arteko epea

EH Bilduk gehiengo sindikalak deitutako grebarekin bat egitera deitu du

EH Bildu osatzen dugun gizon-emakumeok datorren maiatzaren 30ean Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan euskal gehiengo sindikalak dozenaka eragile sozialekin batera deitutako greba orokorrarekin bat egingo dugu.

Lan eskubideak, justizia soziala eta batez ere, demokrazia aldarrikatzeko eguna izango den arren, askoz ere gehiago izango da. Izan ere, euskal herritarrek pairatzen dituzten eraso zuzenei aurre egingo dion mobilizazio eta herritarren burujabetza dinamika baten hasiera izan behar da. Eta eraso zuzenak direla diogu, gure bizitzak Gasteiz, Iruñea eta Madrildik gidatzeko asmoa duten gobernuek, aspaldian herritarrei bizkarra ematea erabaki dutelako, finantza botere handien aginduak betetzeko asmoz. Benetan demokratikoa den sistema batek ez ditu etxe-kaleratzeak gauzatzen; ez du pribatizatzen, eta ez du langabeziara ezta miseriara kondenatzen ere, gutxi batzuen etekinak mantentzen jarraitu ahal izateko.

Eta ukatzen diguten demokrazia hau berreskuratu ahal izateko, euren jazarpen eta ustelkeriarekin zapaltzen dutena, Euskal Herriarentzat burujabetza exijitzen dugu. Herri hau osatzen duten gizon-emakumeak dira, indarrean dagoenarekiko gizarte eredu ezberdina garatzeko politikak erabaki eta martxan jarri behar dituztenak. Eta euskal herritarrek behin eta berriz adierazi dute, Troikak zuzendutako eta Madrildik inposatutako politiken aurka daudela, eta pertsonen duintasuna bere burua kale gorrian ez ikustearren prekarietatea onartzeko prest dauden langabetuen ejerzito bihurtzeko asmoz egindako murrizketa antisozialen eta lan erreformen aurka daudela.

Burujabetza behar dugu, gure beharrei erantzuteko eta pertsonen duintasuna bermatzeko gai ez den eredu zaharkitu hau eraldatzeko, finantza merkatuen krisiagatik ez ezik, beste hamaika arrazoien ondorioz hilzorian dagoen sistema aldatzeko. Izan ere, ez dezagun ahaztu populazioaren erdia jada krisian zegoela, eta jada zapaldua zegoela, edozein motatako finantza burbuilak eztanda egin baino askoz lehenagotik. Eta orain, herria ordezkatzen ez duen klase politiko horrek, herriaren lekuan jartzea erabaki duena alegia, emakumeak etxean egotera kondenatu eta aitortu zein ordaindu gabeko lanean iraunarazi nahi ditu; era berean, gazteak prekarietatera eta langabeziara zigortzen ditu.

Gobernu zein patronalak mobilizazioetarako garaia ez dela esaten digute. Euskal Herria Bildun, ordea, ez gatoz bat. Eta murrizketak egiteko, prekarizatzeko, pribatizatzeko eta eskubide sozialen aurka egiteko garaia ez dela diogu. Zoritxarrez, Confebask, CEN eta CEOErentzat eta instituzioetan dauzkaten ordezkarientzat, hau da Urkullu, Barcina eta Rajoyrentzat, beti da garai aproposa herritarrak zigortzeko, aste honetan erakutsi duten bezala, porrot egindako aurrekontu antisozialen proiektu batekin, kutxa publikoetan egindako lapurreten enegarren gertakariarekin, edota Espainiako presidenteak astero egiten dituen erreforma eta murrizketa iragarpenekin.

235.000 arrazoi baino gehiago aipatu genitzake. Edozein laguntza sozial galdu duten milaka pertsonen izen-abizenak ere esan genitzake, Mario Fernandezen hitzetan asmo txarrez euren zorra mantentzen dutenak, eta gupidarik gabeko banka baten lukurreria ezin ordaintzeagatik, euren etxeetatik kaleratuak izan direnenak. Baina errealitatean, arrazoi bakar bat behar dugu: maiatzaren 30ean kalera aterako gara, Euskal Herria ezkerreko parametroetatik eraldatu nahi duen gehiengo soziala laguntzeko.

Horregatik, hego euskal herritarrak, bertan erabakitzeko burujabetza exijitzen dugunon aliantza eta elkarlana indartzeko balio behar duen grebarekin bat egingo dugu, guztion artean, gehiengoaren eskubide sozialak bermatuko dituen eta gutxiengo pribilegiatu baten eskubideak soilik defendatzen dituen ereduari aurre egingo dion eredu publiko bat eraikitzeko.

Durangaldeko EH Bildu

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
Aralar

Auzolana

Mario Zubiagaren hitzaldi batek luzerako ematen du. Bere hausnarketak memorian geratzen zaizkigu. Gaurkoan herritarren parte-hartzearen harira berak emandako definizioaz jardungo naiz. Parte-hartzeak hiru arlo dituela azaldu zigun: parte eman, parte hartu eta parte izan. Azken horrek borobiltzen du parte-hartzearen kontzeptua, alegia, zerbaiten parte izatearen sentimendua.

Orain aste batzuk, Durangoko trenbideetako pasabideak zabaltzeko auzolanean aritu ginen herritar talde bat. Kalean topatzen genituen herritarrek trenbideekin zeuden arazoez parte eman ziguten, eta euren kexak jaso genituen; lehenengo, baina, gai honetaz aritu ginen udal batzordeetan eta bilkuran behin eta berriz, emaitzarik gabe. Ondoren, ekimena izan eta pasabideak auzolanean elkarrekin zabaltzeko proiektu batean parte hartu genuen; eta funtsean, ekimen osoa kontuan izanda, zerbaiten parte izan ginen.

Poztasuna itzela da, eta sentsazioa erabat gomendagarria, parte eman, parte hartu eta parte izateko gaitasunik ez duten agintarientzat. EAJk, hain zuzen, parte eman, parte hartu eta parte izateko gaitasun falta hori agerian utzi du. Herriaren parte-hartzearen atzetik joan da, eta herritarrek duten meritua onartu ordez, egindakoa suntsitu eta garaikurra janzteko saiakera egin du. Saiakera antzua.

Burokrazia injustuari aurre egiteko erabakiari aurre egin ziotelako, zorionak herritar talde horri! Segi horrela, auzolan berriak etengabe loratu arte.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko maiatzaren 24a
11. urtea - 502. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Anbotok es du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aisialdia

> MENDI IBILBIDEAK

Anboto mendia, Atxondoko Arrazola auzotik begiratuta.

Larranotik Anbotora, Arrazolan amaitzeko

Arrazolan hasi eta amaituta, inguruko mendien eta belardien paisajeak agertuko dira ibilbide osoan zehar

Arrazolan hasi eta amaituta, ibilbide ederra egin ahal da Anboton zehar. Inguruko mendien eta belardien ikuspegiak agertuko dira ibilbide osoan. Momentu batzuetan lan teknikoa eskatzen du, baina gura izanez gero, bide alternatiboren bat ere hartu daiteke.

Arrazolan, kanposantutik gora jo beharko du, lehenengo, mendizaleak. Pista nagusia hartu eta Larranorako norabidean igoko ditu aldatsak; ondo markatuta dago bidea. Hemen, Alluitz mendiaren ikuspegiaz gozatu ahal izango du, esaterako. 956 metrotan topatuko du Larrano, atseden hartu eta Durangaldeko paisajeaz disfrutatzeko leku paregabea.

Larranon bertan, Anbotora ailegatzeko aukera bi edukiko ditu ibiltariak. Zuzenena, gailurrik gailur, mendi puntaren ertzetik joatekoa da. Besteak beste, Kurutzeta eta Elgoin tontorrak zeharkatu beharko ditu mendizaleak. Bigarren aukera, Larranotik Pol-Pol edo Asuntzeko zabalgunera jaitsi eta handik Anbotoren magalera arte joatea da.

Anbotora igoera

Anbotoko igoera izango da hurrengo pausoa. Durangaldeko eta Euskal Herriko mendirik maitatuena da, zaindari mitologikoa. Hortik Zabalandira jaistea eskatzen du ibilbideak. Jaitsiera ikusgarria da; harrian hasi eta apurka-apurka belarra agertzen joango da. Zabalandira ailegatzean, Arrazolara joateko seinalea dago bertan. Anbotoko hormen albotik egongo da etxerako bidea.

ZER IKUSI

Larrano.

Arrazola.

Anboto, Zabalanditik.

laguntzaileak

berrizko UDALA · Garaiko Udala · Iurretako Elizateko Udala · Mallabiko Udala · Otxandioko Udala · Zaldibarko Udala

INSTITUTO ESPECIFICO
DE FORMACION PROFESIONAL
SUPERIOR
ZORNOTZA
GOI-MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERARIAZKO
INSTITUTUA
Lanerako
Langile
Trebatuak
GOI-MAILAKO ZIKLOAK
- Metal-Eraikuntzak.*
- Web Aplikazioen Garapena.
- Mekatronika Industriala.
ERDI-MAILAKO ZIKLOAK
- Merkataritza Jarduerak.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Mantentze-lan Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mikroinformatika eta Sareak Sistemak.
ESKAINTZA PARTZIALA
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.
SARBIDE-PROBAK EGITEKO PRESTAKUNTZA
- Goi Maila: zati orokorra.*
ZIKLO GUZTIAK EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ
DATAK
Aurrematrikula: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra
Matrikula: uztailaren 8tik 12ra
Tel.: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ikasLAN

Kirola

Erdian, Ander Iturraspe, zaleez inguratuta eta San Mameseko maketa eskuetan duela. Zaloa Fuertes

San Mames Durangaldeko ikuspuntutik

> J. G. / M.O. / J.D.

San Mamesek badu xarma berezi bat gainerako futbol zelaietatik bereizten duena. 95 urtez, zaletuen poztasun eta tristuren testigua izan da. Aldaketaren eguna iritsi da, baina. Eraikin zaharrak San Mames Barriari emango dio lekukoa. Asteburuan jokatuko dute azken partidu ofiziala, Levanteren kontra.

Katedralak Athleticeko fededunak domekaro bildu ditu ia mende batez, bai harmailetan, baita zelaian ere. Karmelo eta Andoni Cedrun aita-semeak, Lasa, Arieta, Carlos García eta Durangaldeko beste hainbatek klubaren historiako orrialde esanguratsuak idatzi dituzte.

Gaur egun, Ander Iturraspe (Abadiño, 1989) talde zuri-gorriaren lehen taldean jokatzen diharduen eskualdeko ordezkarietako bat da, Fulham talde ingelesak Fernando Amorebietaren fitxaketa asteon publiko egin eta gero.

Iturraspegaz batera, Durangaldeko hainbat Athletic zalegaz hitzordua jarri dugu. San Mames zaharrean bizitakoaren inguruan galdetu diegu. Iturraspe ordurako heldu da zitara. Abadiñarrari galdetu diogu lehenengo. Akorduan ditu 19 urtegaz Valladoliden aurka San Mamesen jokatu zituen lehenengo hogei minutuak: "Beroketak egiten nenbilen. Jokatzera nindoala eta prestatzeko esan zidaten. Berdegunera sartu orduko, Caparrosek esan zidan nekien moduan jokatzeko, lasai jokatzeko". Lehenengo partiduetan tentsioa izaten zela nagusi aitortu du jokalariak: "Gauza asko egin gura dituzu denbora gutxian". Hamar urtegaz harrobian sartu zenetik, partiduak ikustera joaten zen San Mamesera. Egunen batean, bera ere lehen taldeko jokalaria izango zela amesten zuen sasoi hartan. "Garai hartan, urrun ikusten nuen lehenengo taldea. Belaunaldi bakoitzetik lehen tal-

> Iturraspek akorduan ditu 19 urtegaz Valladoliden aurka San Mamesen jokatutako 20 minutuak

dera jokalari bakarren bat pasatzea izaten da ohikoena. Anbizio larregi edukitzea ere ez da ona izaten, gainera. Hobe da presio hori alde batera uztea".

Hamabostero San Mames zaharrera autobusez heltzen direnean, ondoan eraikitzen ari diren zelai berriaren aurrerapenak ikusten dituzte jokalariek. "Guztiok ipintzen gara autobusaren alde horretako leihoetan, zelai berriko obrak zelan doazen ikusteko".

Badatoz Athletic zaleak ere *Anboto*ren topagunera. Batzuek ezagutzen dute dagoeneko Iturraspe. Beste batzuek, ostera, lehenengoz ikusi dute aurrez aurre. Manu Beltran eta emaztea hamazazpi urtean dira Athleticeko bazkide. 1984an liga irabazi zuten eguna ez dute ahazteko moduan. "Arkonadaren atearen atzean geunden, Liceranzuk golak sartu zituenean". Beltran Durangoko Sapuherri-Imanol Etxeberria peñako kidea da gainera.

Marijo Berrojalbiz eta Matxalen Fernandez ama-alabek bihotzean daramate Athletic. Matxalen jaio zenean, Marijok Athletic Fundazioaren kide egin zuen. "Lezamara entrenamenduak ikustera eta nesken partiduetara ere joaten gara". Matxalenek berak futbolean jokatzen du.

Maixa Garro orain zazpi urte egin zen bazkide. "Fernando Amorebieta lehenengo taldean hasi zenean aukera izan genuen, eta bazkide egin ginen. Leire alaba txikia ere zalea da".

Hogei urte daramatza Gorane Muñoz zaldibartarrak Athleticeko bazkide. Txikitan, zaletasuna zuela-eta, aitak bazkide egin zuen. Horrenbeste urtean, partidu gogoangarri askogaz gozatu du: "Sporting de Lisboaren aurka Europa Leaguen finalaurrekoa nabarmenduko nuke. Oso giro ona egon zen". Ahaztekoa, ostera, Stephanovicen sasoia izan zela deritzo. "Rayo Vallecanori irabazi genion, jaitsi ez jaitsi geunden".

24 urte daramatza Athleticeko karnetagaz Nerea Rebolledok. Pena handiz bizi du San Mames zaharraren itxiera. "San Mames berezia da niretzat. Ordu asko eman ditut han, tartean nire haurdunaldiak. Bi umeak San Mamesen egon dira jaio aurretik". Zelai berria, modernoa dela deritzo, "baina arkua falta zaio, ikur bat da".

Joseba Goxentziak hiru-lau urte daroaz bazkide, baina aurretik ere joan izan da San Mameseko partiduak ikustera. Gogoan dauka Joseba Etxeberriaren golagaz Ligan bigarren geratu zirenekoa. Bere aldeko porterian izan zen: "Zelaira salto egin genuen, eta belar zati bat hartu genuen".

Athletic-Bizkaiko selekzioa San Mames agurtzeko partiduan

Josu Urrutiak prentsaurrekoan baieztatu zuen atzo Athleticek Bizkaiko jokalariez osatutako selekzio baten aurka jokatuko duela ekainaren 5ean

Uruguaiko Nacional taldea San Mameseko agurreko partidura etortzeko prest zegoela publiko egin eta egun batzuetara, prentsaurrekoa eman du Josu Urrutia klubeko presidenteak. Katedrala agurtzeko, Uruguaiko taldearen kontra beharrean, klubak gurago izan du Bizkaiko jokalariz osatutako federazioaren aurka jokatu. Kazetarien galderei erantzunez Urrutiak atzoko agerraldian azaldu zuenez, enpresa baten bidez taldeak Nacionalekin hartu-emana izan duen arren, ez zuen konpromisorik lotu. Erabaki aldaketagaz haserre agertu dira, baina, uruguaitarrak.

> Urrutiak azaldu duenez, Nacionalegaz hartu-emana izan duten arren, ez zuen konpromisorik lotu

> Martitzenean bertan jarri zen Athletic Club harremanetan Bizkaiko Federazioagaz

Iñaki Gomez Mardones Bizkaiko Futbol Federazioaren presidenteak Urrutiarekin batera atzo emandako prentsaurrekoan azaldu zuenez, oraintxe jarriko dira hautatzailearen eta jokalarien bila ekainaren 5eko partidua prestatzeko. Martitzenean bertan jarri zen kluba harremanetan Bizkaiko Federazioagaz, partiduan parte hartzea proposatzeko. Albistea emozioz hartu dutela dio Gomez Mardonesek.



> TXIRRINDULARITZA

Marianne Vos hirugarren Biraren bila etorriko da

Munduko onenak asteon konfirmatu du Emakumeen Birara etorriko dela

Antolatzaileak, udal laguntzaileak eta babesleak, eguaztenean Iurretako udaletxean egindako aurkezpenean.

> JOSEBA DERTEANO

Aurten mendi bizikletan zentratuta dabilen arren, UCIren rankingeko buruan dagoen Marianne Vos herbeherearrak ekainaren 6tik 9ra Emakumeen Biran parte hartuko duela konfirmatu du. Munduko eta Joko Olinpiarretako txapeldunak hirugarren bider irabazi gura du Bira eta bera izango da faborito nagusia, doan tokira doala hala delako. Lortuko balu, Joane Somarriba eta Hanka Kupfernagelen markak berdinduko lituzke.

Maillot horia garesti saldu ko diote arerioek. UCI-ren rankingeko hamar onenetatik bederatzi etorriko dira: Emma Johansson eta Evelyn Stevens, besteak beste. Iazko irabazle Judith Arndt ez da etorriko, txirrindularitza utzi duelako. Durangaldeko taldeei dagokienez, Bizkaia-Durangok talde indartsua dakar, Anna Sanchis, Joane Hogan, Ane Santesteban eta Dorleta Eskamendigaz. 19 urteko Lourdes Oiarbidek lehenengoz parte hartuko du Biran.

> Vosek irabaziko balu, Joane Somarriba eta Hanka Kupfernagelen markak berdinduko lituzke

Ibilbideari dagokionez, Iurretan hasi eta amaituko den lehenengo etapa aproposa da esprinterrentzako. Bigarren etapan (Aretxabaleta-Aretxabaleta) hasiko da taldeburuen dantza, batez ere, Leintz-Gatzagoko malda gogorretan; mendate gainetik helmugara 15 kilometro bakarrik faltako dira. Hirugarren etapa erlojuz kontrakoa da, bide estuagaz eta hainbat aldatsekin. Azkenengo etapa Ramon Gonzalez Arrieta txirrindulari ohiak diseinatu du. Hiru mendate gainditu beharko dituzte txirrindulariek Gatikara heldu aurretik.

Biraren aurkezpenean, Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak udalen eta babesleen sostengua eskertu zuten, Bira posible egiten dutelako.

ETAPAK

- Lehen etapa: Iurreta-Iurreta
  Luzera: 91,3 kilometro
- Bigarren etapa:
  Aretxabaleta-Aretxabaleta
  Luzera: 103,5 km
  Mendateak: Udana (3. maila) eta Leintz Gatzaga (1. maila)
- Hirugarren etapa:
  Urduña-Urduña
  Luzera: 13,4 km erlojuz kontra
- Laugarren etapa: Fruiz-Gatika
  Mendatea: Meakaur (3. maila), Errogoiti (2. maila) eta Arrieta (2.maila)

> HERRI KIROLAK

Gaztetxoen Euskadiko txapelketa etzi, merkatu plazan

Haurren kategorian (13-14 urte) Euskadiko Herri Kirol Txapelketa jokatuko dute domekan, 11:00etan, Durangoko merkatu plazan. Kimu maileta ko gaztetxoak ere batuko dira, baina horientzako topaketa bat izango da. Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen txapelketan 100 gaztetxo inguru batuko dira.

Elkartuko diren hiru taldeak Bizkaitarrak dira: Larramendi ikastola (Mungia), Alaitasuna (Bakio) eta Barrutia (Arratzu). Gipuzkoako eta Arabako taldeek ezin izan dute haur-kategoriako talderik osatu aurten.

Gaztetxoak sokatiran, txingak eroaten, lokotx-batzen, giza proban eta saku proban lehiatuko dira.

> PILOTA

Mallabia eta Elorrio herri arteko final laurdenetan

Mallabia eta Elorrio Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketako final laurdenetara sailkatu dira. Mallabiak Markina izango du hurrengo arerioa, eta Elorriok Arrankudiaga. Biak sailkatuz gero, elkarren kontra jokatuko lituzkete finalerdiak. Atxondo, aldiz, kanpoan utzi du Gernikak.

Bestalde, gazte mailetan, Atxondok Bizkaiko txapelketa irabazi du kimuen A mailan, Pello Axpe eta Egoitz Axpe bikiekin. Zapatuan, 11:00etan, Euskadiko txapelketa jokatuko dute Durangoko San Faustoko frontoian. Arabako eta Gipuzkoako bikoteak ere etorriko dira. Azkenik, haur-kadete kategorian, Bizkaiko txapeldun geratu dira Ane Diez eta Amaia Marizkurrena atxondarrak.

ADITUAREN TXOKOA

GOTZON GOMEZ

Errugbia

Gozatzen jarraitu nahirik

Txiki-txikitatik talde kirolean aritu garenak jendez inguraturik egotera ohituta gaude, kirolaz gozatzeaz gainera, taldekideekin egoteko beharra daukagu. Ondoren, lehiaketa uztean, ez zaigu erraza egiten banakako kiroletan aritzea.

Errugbian sekulako zortea daukagu beteranoen taldeekin. Azken urteetan inguruko klub gehienetan beteranoentzako atalak sortu dira, eta urteetan aurkari izandakoekin berriz ere lehiatzeko aukera paregabea eskaintzen zaigu.

DRTan Sapuzaharrak beteranoen taldea sortu genuen duela lau bat urte. Helburuak, besteak beste, errugbia zabaltzen eta ezagutarazten ahalegintzea, errugbiaz gozatzen jarraitzea, eta sasoi batean izandako lagunekin egoteko aukera izatea dira. Kirol arloa zein arlo ludikoa bultzatzen saiatzen gara.

Aurten, lehenengoz, Bizkaiko beteranoen txapelketa burutuko da, eta durangarroi egokitu zaigu antolatzea. Arripausuetan 8 talde ariko gara: Getxo, Gernika, UniBilbo, Mungia, Kakarraldo, Elorrio, Lourdes eta Sapuzaharrak. Hitzordua ekainaren 8an izango da, 10:00etatik aurrera.

Zelaian, sasoi batean arinak, indartsuak edo oso trebeak izandako jokalariak ikusteko parada izango duzue. Denboraren joanak gorputzetan hedatutakoak ere bistan izango ditugu, ile urdinak zein burusoiltasuna ere hor izango dira, baina ziur izan batzuk oraindik sasoian daudela erakutsiko dutela. Bertaratu eta gozatu, ez zaizue damutuko. Hemendik besarkada handi bat Tatarentzat.

> LASTERKETA

Domekako lasterketaren ostean etapa berriari ekingo dio Iurretako Hiri Probak

Baliabide ekonomikoak gutxitzeak alternatibak bilatzera behartu dituela adierazi du Bidezabalek

Aitor Casal Bidezabalgo presidentea eta Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea.

> JOSEBA DERTEANO

Aurten 33. aldia egingo duen Iurretako Hiri Probak formatua aldatuko du datorren urtetik aurrera. Izaera herrikoiagoa izango du, ibilbidea Durangaldera zabaltzen saiatuko dira eta gazte mailak indartuko dituzte. Inoiz 40.000 euroko aurrekontua izan duen probaren aurtengo zenbatekoa 15.000 eurokoa da, eta "proba biziberritzeko alternatibak bilatu beharrean daudela" onartu du Aitor Casal Bidezabalgo presidenteak.

Bien bitartean, aurten ohiko formatuari eutsiko diote. Domekan, 10:00etan, mailaz maila Iurretan zehar osatutako zirkuituan lehiatuko dira 200 bat korrikalari. Horietatik 100 bat, gazte mailetakoak dira, 10:00etatik aurrera mailaz maila irtengo direnak. Nagusiak 12:00 inguruan abiatuko dira. Eliteko korrikalarien maila ohi baino xumeagoa izango da, aurrekontuak horretara behartuta. Hala ere, maila handiko atletak etorriko dira. Gizonetan Ayad Lamdassem (birritan Europako Kros Txapelketako azpitxapeldun izandakoa), Ivan Fernandez (iazko irabazlea), Dani Mateo (Kroseko Espainiako txapelduna izana promesetan) eta Bidezabalgo David Garcia Azofra nabarmendu daitezke; emakumeetan Bidezabalgo Belit Solar eta Iraia Garcia, eta, Iris eta Zulema Fuentes Pila ahizpak.

Zaldibarretik hasita

2014tik aurrera egiteko hainbat alternatiba hausnartzen dabiltza. Ibilbideari dagokionez, baliteke lasterketa Zaldibarren hasi eta Iurretan amaitzea. Eliteko atletak baliabideen arabera ekarrita, izaera herrikoia emango liokete probari "indar handia hartzen dabiltzalako". Proba nagusia amaitzean, gazteen mailetakoak hasiko lituzkete Iurretan. Hori dena federazioaren eskakizun denak beteta egin gura dute, probaren prestigioari eusteko.

AGENDA

> FUTBOLA

LEHENENGO ERREGIONALA

Zaldua - San Ignacio
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

> ARETO FUTBOLA

LEHENENGO ERREGIONALA (txapeldunak)

Sapuberri - Gramol
· Zapatuan, 19:55ean, Landako kiroldegian

FUTBITO MARATOIA

Bizkaiko eta Gipuzkoako 400 gaztetxo batuko dira Mallabian. Guztira, 32 talde.
· Zapatuan 09:00etan hasi eta domekan 14:00etan amaituko da, Mallabian

> SASKIBALOIA

BIGARREN ERREGIONALA (bigarren fasea)

Julza Zaldua - Dosa Salesianos
· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

> ERRUGBIA

EUSKADIKO KOPA (kadeteak)

DRT-Hernani
· Zapatuan, 11:00etan, Elorrioko San Roke errugbi zelaian

EUSKADIKO KOPA (haur-kategoria)

DRT, Atletico San Sebastian, Bera Bera
· Zapatuan, 17:00eTan, Elorrion

> IGOERAK

Elorrioko, Presion Break eta Sasikoa igo egin dira

Elorrioko Buskantzak eta Sasikoak Hirugarren Mailan jokatuko dute datorren denboraldian

